

Ordizian, 2015eko urriaren 8an UDALBATZARRAK aparteko bilkura egin du udaletxe honetako bilkura aretoan.

BERTARATUTAKOAK:

LEHENDAKARIA:

José Miguel Santamaría Ezeiza

BERTAN DAUDEN ZINEGOTZIAK:

Angelica Moreno Heras	EAJ/PNV
Bittor Bolinaga Alzelai	EAJ/PNV
Jose Ignacio Iturrioz Gotor	EAJ/PNV
Arantxa Fernandez Alvaredo	EAJ/PNV
Igor Eguren Izagirre	Ordiziako E.H.-Bildu
Belen Maiza Urrestarazu	Ordiziako E.H.-Bildu
Adur Ezenarro Agirre	Ordiziako E.H.-Bildu
Izaro Intsausti Zinkunegi andrea.	Ordiziako E.H.-Bildu
Jon Ander Caballero Zubelzu	Ordiziako E.H.-Bildu
Mila Sukia Galparsoro	Ordizia Orain
Iñaki Dubreuil Churruca jauna	Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak

IZAN EZ DIREN ZINEGOTZIAK:

Antxon Sanz Lecuona	Ordizia Orain
---------------------	---------------

IDAZKARIA:

Iker Rocandio Etxeberria

KONTUHARTZAILEA:

Jose Luis Aranburu Otegi

AZTERTUTAKO GAIK:

- 1- 2015eko uztailaren 16an egindako osoko bilkurako akta onartzea.
- 2- 2015eko uztailaren 22an egindako osoko bilkurako akta onartzea.
- 3.- 387 zenbakiik 830 zenbakira bitarteko Alkatetza Dekretuen berri ematea.
- 4.- Ordizia Orain alderdiko zinegotzi karguari uko egitea. Jakinarazpena.

- 5.- EAJ/PNVren proposamena (Stop Desahucios-en izenean), desjabetzearen, pobreziaren eta desberdintasunen aurkako neurrien dekalogoaren onartzeko.
- 6.- Ordiziako EH bilduren proposamena, Askapena, Askapeña, Herriak Aske eta Elkar Truke eta bere inputatuei elkartzasuna adierazteko.
- 7.- Udaleko alderdi politiko guztien proposamen bateratua, hainbat herrialdeetako gatazketatik ihes egiten duten ehundaka mila pertsonen jasaten duten giza-zorigaitza dela eta.
- 8.- Udaleko talde politiko guztien proposamen bateratua, 2015eko mundu mailako emakume martxarekin bat egiteko.
- 9.- Udaleko alderdi politiko guztien proposamen bateratua, "Ordizia seguru eta emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko" baten aldekoa.
- 10.- EAJ/PNVren proposamena, hiri hondakin solidoak jasotzeko sistemari buruzko kontsultari buruzkoa.
- 11.- Etxebizitza alokatzeagatik laguntzak emateko ordenantza behin betiko onartzea.
- 12.- Zenbait erakundetako Udal ordezkariak izendatzea.
- 13.- Kreditu aldaketak.

#### ORDUTEGIA:

HASIERA: 19:05etan

AMAIERA: 21:37etan



1.- 2015eko uztailaren 16an egindako Osoko Bilkurako akta onartzea.

Proposamena

2015eko uztailaren 16an egindako ohiko Osoko Bilkurako akta onartzea

Bozketaren emaitza

Aldekoak: 12 (EAJ/PNV 5, Ordiziako E.H. Bildu 5, Ordizia Orain 1, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz, Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.



2.- 2015eko uztailaren 22an egindako osoko bilkurako akta onartzea.

Proposamena

2015eko uztailaren 22an egindako ohiko Osoko Bilkurako akta onartzea

Bozketaren emaitza

Aldekoak: 12 (EAJ 5, Ordiziako EH-Bildu 5, Ordizia Orain 1, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz, Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.



3.-387. zenbakitik, 830. zenbakira bitarteko Alkatetza Dekretuen berri ematea.

Plenoa jakinaren gainean geratu da.



#### 4.- Ordizia Orain alderdiko zinegotzi karguari uko egitea. Jakinarazpena

ORDIZIA ORAIN zerrendatik Udal honetako hautetsi izandako Luis Antonio Sanz Lekuona jaunak 2015eko irailaren 7an aurkeztutako eskaera, arrazoi pertsonalengatik Zinegotzi karguari uko egiten dio ezin duelako karguari dagozkion zereginak bete.

Horrekin batera Iker Korta Sukia jaunak aurkeztutako eskaeraren berri ematen da; bertan, Luis Antonio Sanz jaunak karguari uko egin diola jakin ostean eta hautagaien zerrendako hurrengoa izanik eta hurrengo izendapena berari dagokiola kontuan izanik, zinegotzi izendapenari uko egiten diola jakinarazi du.

Beste alde batetik, zerrendako hurrengo hautagaiak, jarraian zehazten direnek, zinegotzi izendapenari uko eginez eskaera aurkeztu dute.

M<sup>a</sup> Soledad Viana Alvarez andrea  
Miguel Perlines Carracedo jauna

Toki Erakundeen Araubide Juridikoaren, Antolakuntzaren eta Funtzionamenduaren Araudiko 4. ataleko 9. artikulua ikusita, ondorengo proposatzen da:

#### AKORDIO PROPOSAMENA

ORDIZIA ORAIN zinegotziaren, LUIS ANTONIO SANZ LEKUONA jaunaren uko egitea onartzea.

MARIA JESUS SOTO DE LOS SANTOS andrearen izendapena proposatzea ORDIZIA ORAIN alderdiak Udal honetan duen zinegotzi kargua betetzeko.

Hauteskunde Batzorde Zentralera bidaltzea akordio hau Batzordeak proposatutako hautagaiaren izendapena egin dezan.

Plenoa jakinaren gainean geratu da.



#### 5.- EAJ/PNVren proposamena (Stop Deahucios-en izenean), desjabetzearen, pobreziaren eta desbertintasunen aurkako neurrien dekalogoia onartzeko.

##### Proposamena

Giza eskubideei buruzko nazioarteko hitzarmen nagusiek zein Espainiako Konstituzioak etxebizitza eskubidea politika sozial eta ekonomikoaren gida-oinarri gisa arautzen dute. Hortaz, eskubide honen sustapenak materia honen gainean eskumenak dituzten botere publiko guztien jarduera positiboa eskatzen du, hauen artean Tokiko

Administrazioarena ere.

Egungo krisi ekonomikoaren ondorio larrietako bat familia askok euren olliako etxebizitzaren mailegu hipotekarioarioaren kuotak edo alokairuaren errentak ordaintzeko bizi duten ezintasuna da. Egoera honek, etxebizitzaren galera ez ezik, langabeziak eragindako gainontzeko ondorio tamalgarriak dakartza kasu askotan berarekin.

Tokiko Adminisirazioek ezin dute honen aurrean geldirik egon. Hiritarroi babesa eskeini eta etxebizitza eskubidea modu eraginkorrean bermatzeko beharrezkoak diren jarduerak burutu behar dituzte. Kasu askotan, gainera, botere publikoek finantza erakundeen eta hiritarron harremanetan gero eta nabarmenagoa den desoraka berdintzeko ian egin beharko dute, halaber.

Horregatik, udalek ohizko etxebizitza galtzeko arriskuan dauden familiak babesteko programak abian jarri beharko dituzte, aholkulariiza eta bitartekaritza indartuz eta, betiere, KALERATZEAK STOP DESAHUCIOS bezalako plataformekin elkarlanean.

Udalek, herritarrongandik gertuen dauden administrazioak direlako eta euren arazo, behar eta eskakizunak ezagutzen dituzelako, langabeziak estututa edo eurek sortu ez duten krisi ekonomikoak ordainezinak bilakatu dituen hipotekei aurre egin ezin dietelako, egoera kezkarria bizi diren milaka familien egoera zuzentzeko betebeharra dute.

Honengatik guztiagatik, eta udal honetan ordezkariak duten alderdi politiko eta hauteskunde-koalizioek sinatu duten KALERATZEEN, POBREZIAREN ETA DESBERDINTASUN SOZIALEN KONTRAKO DEKALOGOAREN 10. puntua bete dadin nahi dugulako, KALERATZEAK STOP DESAHUCIOS plataformak ondorengo mozioa aurkezten du osoko bilkuran eztabaidatua eta onartua izan dadin.

MOZIOA:

1. Udaletxe honek "Kaleratzerik Gabeko Herri" deklaritzen du udalerrri hau.
2. Udaletxe honek beharrezko diren baliabide eta neurri guztiak erabiliko ditu lehen etxebizitzako kaleratze eta irtenarazteak geldiarazteko eta, behar izanez gero, bizileku bat izateko aukera bermatzeko.
3. Udaletxe honek etxegabetzeak saihesteko jarduera guztiak koordinatuko dituen pertsona edo organismo bat izendatuko du, betiere Kaleratzeak Stop Desahuciosekin eta etxebizitza duin baten eskubidearen alde lan egiten duten gainontzeko elkarteekin lankidetzan jardunez.
4. Udaletxe honek udalerrri honetan jarduten duten finantza erakundeengana joko du fede oneko zordunen kaleratzeak geldiaraz ditzatela eskatzeko, jabetzan dituzten etxebizitza hutsen errolda galdatzeko eta hutsik dauden etxebizitza hauek alokairu sozialeko programa publikoen zerbitzura jar ditazten exijitzeko. Erantzunik jaso ezean, abian jarri beharreko neurriak aztertuko ditu, besteak beste, finantza erakunde hauekin lan egitean uztea
5. Udaletxe honek, kaleratze edo irtenarazte baten abisuaren aurrean, finantza edo administrazio erakundearekin bitartekotza egingo du etxegabetzea geldiarazteko eta, behar izanez gero,

irtenaraztean udaltzatngoak kornisio judizialari laguntza eman diezaion ekidingo du, kaltetutako personak bizi duen egoeraren larritasuna aztertuz eta konponbide justu eta egoki bat bilatuz. Etxegabetzea saihestu ezin izan denean, udaletxeak beharrezko neurriak hartuko ditu kaltetutako pertsonen arrazoizko prezioan alokairu sozialeko erregimenean berriz ostatu emateko.

6. Udaletxe honek kaleratzea edo irtenaraztea ekar dezaketen kasu guztien berri eman diezaioten galdegindo die epaitegi eskudunei, bazterketa arriskuen dauden kolektibo sozialak identifikatu, zerbitzu sozialek euren txostena eman eta kolektibo hauei bizileku bat eskeini ahal izateko.

7- Udaletxe honek, Alokabidek kudeatzen duen Etxebizita Publikoen Parkeari dagokionean, LAKUAKO GOBERNUARI beharrezkoak diren erabaki eta modifikazio legalak burutu ditzan exijitzen dio, GASTEIZKO LEGEBILTZARRAK pasa den 2014ko apirilaren zazpian etxebizitza publikoen inkilinoei buruz hartutako akordioa betearazteko.

8. Udaletxe honek titulartasun publiko zein pribatuko etxebizitza hutsen inbentario bat egingo du lehenbailehen. Bere jabetzakoak hiritarren bizileku premien zerbitzura jar daitezten beharrezko diren neurriak hartuko ditu, bereziki fede oneko diren zordunen etxegabetzea saihestu ezin izan den kasuetarako. Era berean, hiriaren etxebizitza beharrak aztertuko ditu sei hilabeteko epean eta, hauen artean, pilaketak, erabiliak izan ezin diren etxebizitzak edo berritzeak behar dituztenak ere kontuan hartuko ditu.

### Hitzartzeak

#### Alkatea

Proposamena ez da EAJrena. Udaleko talde guztiek aurkezten dugu, baita Ordizia Irabazik ere. Goraipatu beharra dago plataformak egiten duen lan zintzoa. Haiekin koordinatzen ari gara.

#### Igor Eguren

Pozten gaitu EAJren jarrerak, batzar orokorretan abstenitu baitzen. Udalak baliabideak jarri behar dituen bezala, aurrekontuan kopuru bat jarri beharko da.

#### Mila Sukia

Alde gaude. Baina mozioarekin ez dadila gertatu 2012an gertatu zena. Hau da: aplikatu dadila.

#### Iñaki Dubreuil

Horrekin ados gaude. 2012tik aurrera neurriak hartu dira baina aurrera egin behar dugu eta kontuan izan behar dugu hurrengo aurrekontuetarako.

### Bozketaren emaitza

Aldekoak: 12 (EAJ 5, Ordiziako EH-Bildu 5, Ordizia Orain 1, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1)

Aurkakoak: 0  
Abstentzioak: 0

Beraz, Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.



### 6.-Ordiziako EH Bilduren proposamena, Askapena, Askapeña, Herriak Aske eta Elkar Truke eta bere inputatuei elkartasuna adierazteko.

#### Proposamena

“Elkartasuna da herrien arteko samurtasuna”. Oinarrizko printzipio bat da, gizakiak elkarbizitzarako lege eta araudiak, zuzenbidea eta irizpide etikoak sortu zituenetik. Hala ere, pertsonen nahiz herrien arteko elkartasun eza agerikoa da oso, geure mundu honetako gaitzen aurrean begiak itxi nahi ez dituenarentzat.

Elkartasunak, asmo onen bilduma hutsa izan ez dadin, bi baldintza bete behar ditu: batetik, gaiarekiko sentiberatasuna daukaten gizon-emakumeak antolatu ahal izatea; bestetik, gizarteak antolakunde horiek babestea egoki deritzen tresnekin. Udala da baldintza biak gauzatzearen erantzule, herritarren nahiarekin bat eginik.

Elkartasunezko internazionalismoak herri gisa beste herri batzuk babestea du helburu, bidegabekerien benetako kausen aurkako borrokan, gurea ere baden borrokan; eta beti ere kanpoko esku-hartzearen aurkako jarreratik. Hori ez da lan erraza nazioarteko egoera gatazkatsuan, non laguntza humanitarioa xantaia politiko eta militar moduan erabiltzen den.

Udal honen aldetik, ezagutzen dugu nazioarteko elkartasunaren alorrean Askapenak 28 urte luzez eramandako jardura politiko. Brigada internazionalisten bitartez, elkartasun kanpainen bitartez, bertoko nahiz nazioarteko topaguneetan bidegabekerien aurka egindako salaketan bitartez etab. Askapenak herrien arteko bidezko funtzionamendu demokratikorako ezinbesteko baloreak eman dizkio euskal gizarteari.

Hemen salatu nahi dugu Askapena fiskaltzaren ilegalizazio eskaerari aurre egin beharrean dagoela, Herriak Aske elkartarekin eta Elkar Truke SL-rekin batera; baita bost militanterentzat seina urteko kartzela zigorra eskatzen dutela ere, elkartasun internazionalistaren baitan egindako lanarengatik.

Hori guztia ekubide zibil eta politikoen aurkako beste eraso dela deritzogu. Jokabide horren atzean dauden helburu politiko eta alderdikoiak salatzen ditugu. Askapenaren bitartez eta elkartasun internazionalistaren baitan euskal udalek burututako jardunari zilegitasuna kendu izana gaitzesten dugu. Espainiar fiskaltzaren erabakia Euskal Herriko gatazkaren konponbidean arduragabekeriaz ipinitako oztopoa dela uste dugu.

Horrexegatik guztiagatik Udal honek honakoa adierazten du:

1. Elkartasun internazionalista bultzatzeko lanean diharduten erakunde eta pertsona guztiekiko babesa.
2. Askapena, Askapeña, Herriak Aske eta Elkar Truke-rekiko nahiz inputatutako bost euskaldun internazionalistekiko elkartasuna.
3. Askapena, Askapeña eta Elkar Trukek egiten duten lana ez oztopatzeko exigentzia.
4. Walter Wendelin, Gabi Basañez, Unai Vazquez, Aritz Ganboa eta Dabid Soto euskaldun internazionalisten aurkako epaiketa euren absoluzioaz amaitzeko, dagozkien eskubideak itzultzeko eta zor zaien erreparazioa emateko erreklamazioa.

### Hitzartzeak

#### Igor Eguren

Elkartasun internazionalistaren aurkako jazarpena amaitu behar da.

#### Alkatea

Testu alternatibo bat aurkeztea nahi genuen. Bertan, prozeduraren artxiboa eskatzen genuen, normalizazioari laguntze aldera.

#### Mila Sukia

Bat gatoz proposamenarekin.

#### Iñaki Dubreuil

Abstenitu egingo naiz. Zuzenbide Estatu batean epaitzea estamentu judizialari dagokio.

### Bozketaren emaitza

Aldekoak: 11 (EAJ 5, Ordiziako EHBildu 5, Ordizia Orain 1.)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 1 (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)

Beraz, Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.



7.- Udaleko alderdi politiko guztien proposamen bateratua, hainbat herrialdetako gatazketatik ihes egiten duten ehundaka mila pertsonen jasaten duten giza-zorigaitza dela eta.

### Proposamena

2013ko urrian Lampedusan zorigaitza izan zen, bertan 368 pertsona hil ziren, eta gertaera hura zorigaitzoko mugarria izan zen Europar Batasunarentzat. Batasuneko eta nazio mailako agintarien erreakzioak ikusita, pentsatu genuen horrelako zorigaitza ez errepikatzeko irtenbideak ipiniko zirela



martxan. Baina zoritxarrez, bi urte eta gero, gerratik edo miseriatik ihes egiten duten errugabeak hiltzen ari dira oraindik, ez soilik Mediterraneoan baizik eta europar lurralde osoan.

Gaur egungo ezbeharrak da, milaka pertsonak heriotzetik ihes egiten dute eta euren bizia arriskuan jartzeko prest daude, eta askotan galtzeko prest ere bai.

Etsipenagatik gerratik, indarkeriatik, pobreziatik eta heriotzetik ihes egiten duten ehundaka mila pertsonak jasaten duten drama humanitarioa da. Nazio Batuen Erakundeak adierazi du honako hau Bigarren Mundu Gerraz geroztik gertatu den errefuxiatu mugimendu handiena izan dela. Ezin gara bazterrean geratu une hauetan.

Edozein pertsonaren barrualdea astintzen duen egoera dramatiko honetan buru-belarri murgiltzeko unea da. Egoera honek Europar Batasun osoaren eta Batasuna osatzen duten kide guztien gaitasun etikoa neurtzen du.

Ezin dugu adierazi halabeharrez gertatu direla errefuxiatuek bizi dituzten ezbeharrak, Mediterraneoan ito diren edo kamioi batean itxita ito diren pertsonen heriotzak. Etorkizun hobea lortzeko bidean, ezin ditugu eskrupulurik gabeko pertsona-trafikatzaile batzuen esku utzi, beraien ihesaldian beste alternatibarik ez badute, bizia arriskuan jartzen jarraituko baitute.

EAJ/PNV, EH Bildu, Ordizia Orain-Podemos, eta talde Sozialista alderdiek badakigu ordiziar gehienak solidarioak direla eta baliabide komunak zati bat eskaintzeko prest daudela heriotzetik ihes euren bizia arriskuan jartzen ari diren pertsonak laguntzeko.

Kontuan hartzen dugu Ordizia beti herri solidario bat izan dela eta izaten jarraituko duela. Balkanetako gerran egin zuen moduan edozein une eta egoeratan bere elkartasun aktiboa erakutsi du Ordiziak, eta hori egiten jarraitzen du kooperazio eta garapen proiektuei egiten dien ekarpenekin.

Egoera dramatiko honen aurrean pertsona gisa eta europar gisa dugun betebeharrak moralean sinestuz, Ordiziako Udalak ezbehar honen aurrean jarrera aktibo eta solidario bat izan nahi du.

Errefuxiatuekiko elkartasuna eta erantzukizuna gauzatzeko Ordiziako Udalak erabaki du hainbat neurri martxan jartzea udal eremutik, ahal dugun neurrian errefuxiatuen egoera arintzen laguntzeko.

1. Errefuxiatu hauentzako harrera-udalerririk gisa eskaintzea gure udalerrira, eta Ordizia harrera-udalerrien sarean sartzea.
2. Beharra duten pertsonen eskura uztea udal baliabideak eta larrialdi egoerarako laguntzak ere bai beraien babesgabetasun egoera arintzeko.
3. Gizarte zibilak Ordiziako GKE (Gobernuz Kanpoko Erakunde) eta ekimen partikularren bidez bultzatzen dituen elkartasun ekimenak koordinatzeko prestutasuna azaltzea.
4. Europar Batasunak politika bateratu bat martxan jartzea erreklamatzeko dugu eta immigrazio eta babesleku arloetako eskumenak dituen europar autoritatea izatea, larrialdi egoerei erantzun azkar bat emateko eta jatorrizko herrialdeei laguntza emateko.

Sinatua:

José Miguel Santamaría (EAJ/PNVko bozeramailea eta alkatea)  
Igor Eguren (Ordiziako EH Bilduko bozeramailea)  
Mila Sukia (Ordizia Orain-Podemoseko bozeramailea)  
Iñaki Dubreuil (Euskal Sozialistak-eko bozeramailea)  
M. Jose Vazquez (Ordizia Irabaziko bozeramailea)

### Hitzartzeak

#### Alkatea

Talde guztiak bat gatozenez, talde politiko ezberdinek aurkezturiko testuak bateratu ditugu. Udalak gaia landuko du; horretarako, talde bat osatu dugu eta lanean hasi da.

### Bozketaren emaitza

Aldekoak: 12 (EAJ 5, Ordiziako EH-Bildu 5, Ordizia Orain 1, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz, Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.



### 8.- Emakumeen Nazioarte Mundu Martxarekin (2015) bat egiteko adierazpena.

#### Proposamena

1995ean, Quebec-eko emakume-mugimenduak martxa bat egin zuen, Ogiaren eta Larrosen Martxa, eta 15.000 pertsonak egin zuten bat horrekin, hamar egunez. Babesa ez zen soilik bertako jendearengandik etorri; aitzitik, martxak eragin handia izan zuen nazioartean. Hori dela eta, 2000. urtean martxa modu zabalean deitzea erabaki zen, mundu-mailan, demokrazia, itxaropena, berdintasuna eta bakea aldarrikatzeko.

Martxak bi gai bildu zituen, mundu osoko feministak ados baitaude horien inguruan: pobrezia eta indarkeria sexista. Dena dela, ez ziren gai horiek bakarrik jorratu, beste alderdi batzuez ere jardun zen, besteak beste, formazio- eta hezkuntza- plan osoko baten beharraz, kontzientziazio feminista aktibatze aldera. Gainera, helburu taktikoago bat ere ezarri zen: mundu-sare feminista bat sortzea, hala globalki nola lokalki eragin dezan.

2000. urteko martxoaren 8an abiatu zen Quebec eta Genevan, eta New Yorken amaitu zen. Euskal Herrian ere izan zuen eraginik, hain zuzen, plataforma anitz bat osatu zuten 44 talde inguruk. Ekainaren 17an eta urriaren 7an hainbat ekintza egin ziren Euskal Herriko hainbat txokotan eta, amaitzeko,

manifestaldi nazionala egin zen Donostian. Era berean, hainbat udaletxetan mozioak aurkeztu ziren atxikimenduak lortzeko asmotan, eta Bruselara martxa antolatu zen, Europako mobilizazioa babesteko. Lortutako eragina eta babesa ikusita, bost urtean behin mundu-ekintza handi bat egitea erabaki zen.

2015ean, bost urte beranduago, 4. Nazioarteko Ekintza egingo dugu, lema honen pean: "Geure gorputzak, geure lurraldeak. Martxarekin jarraituko dugu guztiok libre izan arte".

Martxoaren 6tik urriaren 17ra bitarte, herrialde guztietako milaka emakumek munduari erakutsiko diote zer-nolako alternatiba feministak proposatzen dituzten eredu kapitalista eta heteropatriarkalaren aurrean. Europan, karabana feminista bat abiatu zen martxoaren 8an Kurdistandik eta kontinente osoan zehar ibiliko da. Urriaren 17an amaituko du ibilbidea, Coimbran. Karabana hori Euskal Herritik pasako da irailaren 28tik urriaren 4ra bitarteko astean.

4. Ekintzak honako helburu hauek ditu:

Emakumeok bizi ditugun askotariko indarkeria-motak IKUSARAZTEA ETA SALATZEA, zapalkuntzak sustatzen dituzten eragileak identifikatuz.

Sistema patriarkal eta heteronormatibo bati kontrajarrita emakumeok honezkero eraikitzen ari garen alternatibak SUSTATZEA ETA IKUSGAI EGITEA, elkartasuna, poza eta sormena sendotzen duten ekintzekin, eta emakumeak kalera irtetea eta manifestatzea sustatuko duten ekintzekin.

MUNDUARI ERAKUSTEA emakumeok erresistentzian ari garela eta ez dugula amore emango gure gorputzaren gainean erabaki ahal izan arte, baieztatuko dugu posible dela beste modu batean sortzea eta bizitzea, taldean eraikiz, modu askean.

Gure mugimendua INDARTZEA ETA ZABALTZEA, komunitateetatik abiatuta, tokikotik, nazionaletik, eskualdekotik eta nazioartekotik, kaleko ekintzekin, emakume gehiagok parte hartuta, hezkuntza politikoarekin eta beste jendarte mugimendu batzuekin elkarlanean.

2015eko Emakumeen Nazioarteko Martxaren inguruan nazioartean eta bertan antolatzen ari diren eta urriaren 17an amaituko diren ekintza eta mobilizazioen eremuan,

ORDIZIAKO UDALAK bat egiten du 2015eko Emakumeen Mundu Martxarekin eta emakume erakunde eta taldeek deitutako eta antolatutako ekintza eta mobilizazioak babesten ditu.

ORDIZIAKO UDALAK, bere eskumenen barruan, emakume eta gizonen arteko aukera berdintasunaren aldeko ekimenak sustatzen jarraitzeko konpromisoa hartzen du, horretarako udalerriko emakume talde eta erakunde feministak kontuan izanda.

ORDIZIAKO UDALAK erakunde eta mugimendu sozialei, ikastetxeei, norbanakoei eta abarri atxikimendu adierazpen honekin bat egiteko gonbidapena egiten diegu, eremu sozialeko ahaleginek berdintasunaren aldeko bide eraginkorrak jorratzen dituztela uste baitugu.

Sinatua:

José Miguel Santamaría (EAJ/PNVko bozeramailea eta alkatea)

Igor Eguren (Ordiziako EH Bilduko bozeramailea)

Mila Sukia (Ordizia Orain-Podemoseko bozeramailea)

Iñaki Dubreuil (Euskal Sozialistak-eko bozeramailea)

M. Jose Vazquez (Ordizia Irabaziko bozeramailea)

### Bozketaren emaitza

Aldekoak: 12 (EAJ 5, Ordiziako EH-Bildu 5, Ordizia Orain 1, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz, Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.



9.- Udaleko alderdi politiko guztien proposamen bateratua, "Ordizia seguru eta emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko" baten aldekoa.

### Proposamena

Genero-indarkeria ez da arlo pribatuan eragiten duen arazoa. Aitzitik, gure gizartean dagoen desberdintasunaren ikurrik bortitzena da. Emakumeen aurka, emakume izateagatik gauzatzen den indarkeria da, erasotzaileek uste dutelako emakumeek ez dituztela askatasun, errespetu eta erabakitze gaitasunari buruzko gutxieneko eskubideak, emakumeak gizonen jabetzapekoak direla eta horiek baino gutxiagotzat hartzen diren gizarte patriarkalaren erduei jarraiki.

Genero-indarkeria gizartearen arazo bat da, bikote gazteen artean nabarmen areagotuz doan arazoa, gaur gaurkoz errotik erauzi gabea. Tamalez, oraindik ere, maiz entzun behar izaten ditugu tratu txarrak jasotzen dituzten, erailak diren eta jazarriak diren emakumeen kasu berriak. Horiez gain, emakumeek beren bizitzan, egunerokotasunean, mikro matxismo-egoerak pairatu behar izaten dituzte, gizartearen edozein arlotan. Esku artean ditugun datuek errealitate bat uzten digute agerian; hau da, ohartarazten gaituzte genero-indarkeria mundu osoan ematen den arazoa dela, adin-tarte zabal batean ematen dela, hezkuntza-maila guztietan, eta gizarte-klase guztietan. Zuzeneko lotura dauka emakumeen eta gizonen artean dagoen botere banaketaren inguruan ematen den desberdintasunarekin.

Abuztu honetan bata bestearen ondoren izan diren erailketa matxista jasanezinek gogora ekarri digute, berriro, askoz ere sakonagoa den gizarte-arazo lazgarria; genero-indarkeriarena. Mugimendu feministek, eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekin konpromisoa hartu duten erakundeek egokiro definitu dute indarkeria hori emakumeek eta, oro har, gizonezko heterosexualaren identitatea eta sexu-orientazioa ez duten pertsonen pairatzen duten desberdintasunaren, bidegabekeriaren eta diskriminazioaren adierazle gisa.

Espainiako gizarteak gorakada pairatu du erailketa matxistei dagokienez. 2015eko uda zoritxarreko uda izan da; izan ere, 2010az geroztik erailketa-kopururik handiena ekarri du. Bortizkeria matxistak gora egin du, halaber, nabarmen eta oso modu kezkarrian, Euskal Herriko familiatan.

Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundearen 2014ko oroitza-txostenaren arabera (duela hilabete gutxi aurkeztua -2015eko maiatza-), indarkeria matxistak eta familia barruko indarkeriak gora egin dute % 58 eta % 38, hurrenez hurren. Gora egin dute, halaber, gero eta bortitzagoak diren sexu-erasoek.

Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundearen (AMEE) oroitza-txostenak jasotakoaren arabera, gora egin du familia barruko indarkeriarekin eta indarkeria sexistarekin lotura duten pertsonen balorazio psikiatrikoen kopuruak: % 58 (745 kasu) eta % 38 (1.793 kasu), hurrenez hurren. Halaber, nabarmen igo da sexu-erasoengatik zabaldutako espedienteen kopurua (% 20); iaz, 242 espediente. Eraso horiek, gainera, gero eta bortitzagoak dira.

2010etik honako datuen bilakaerari dagokionez, oroitza-txostenak agerian jartzen du gora egin duela, mailakatuki, koadro psikiatrikoengatik arreta jaso duten pertsonen kopuruak, bereziki indarkeria matxistarekin (% 61) eta familia barruko indarkeriarekin loturikoak (% 32).

Bestalde, festen zurrumbilo bete-betean izandako sexu-erasoengatik (Ordizian ere gertatuak) ezarritako salaketek berriro ere zabaldu dute jaietan erasotzaileek duten zigorgabetasunari buruzko eztabaida, eta agerian uzten dituzte oraindik irauten duten desberdintasun-erlazioak.

Gertaera tamalgarri eta gaitzesgarri horiek bat datoz, denboran, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak emandako datuekin; horien arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan gero eta gehiago dira emakumeen aurkako indarkeriagatik ezarritako zigorrak. Berriki eguneratua izan den estatistikaren arabera, iaz 783 pertsona espetxeratu zituzten halako delituak burutu izanagatik. Kopuru horrek ia bikoiztu egiten ditu duela bost urte Euskal Autonomia Erkidegoan arazo beragatik ezarritako kondena-epaiak.

Zerbait gaizki egiten ari gara, eta, jakina, ez gara behar beste egiten ari. Prebentzio-lan handia dugu egiteko. Lan hori gizarte osoarena da; familiarena, eskolarena, instituzioena, politika publikoena, lagun-sareena...

Politika publikoak aztertzen eta diseinatzen dituzten pertsonak eskuarki onartzen dute indarkeria matxistari bere osotasunean heldu behar zaiola, eta berdintasunerako politika aktiboak eta zeharkakoak ezarri behar direla. Zeharkakotasun horrek berarekin ekarriko du gertakari honen inguruko prebentzioan eta esku-hartzean politikak eta sektore-esparruak inplikatzeari: hasi hezkuntzatik justiziaraino, osasunaren esparrutik segurtasuneraino, etxebizitzaren inguruko politikatik bizirauteko diru-sarrerak bermatzeraino, hedabideetatik enplegu-zerbitzuetaraino. Eta horrela gainerakoak, modu koordinatuan, arazoa bere osoan hartuz eta jakintza-arlo desberdinetatik landuz.

Gizartearen arazoa izanik, guztiok dugu horri aurre egin beharra eta errotik erauzi beharra. Matxismo kriminala errotik erauztea erronka handia da, herritar, alderdi politiko eta erakunde guztien inplikazioa eskatzen duena. Eta hainbesteko garrantzia duen lan horretan, berebiziko protagonismoa du mugimendu feministak, emakumeen mugimendu asoziatiboak; izan ere, haien lana eta konpromisoa oso baliagarriak dira gizartea etengabe eraldatzeko. Halaber, gure toki-esparruari dagokionez, oso garrantzitsua da berdintasun-kontseilua.

Adin guztietako emakumeek pairatzen duten indarkeriak eskatzen digu Istanbuleko hitzarmena betetzen urratsak ematea. Aipatu hitzarmenak, Espainiak sinatuak, bere osotasunean heltzen dio emakumeen aurkako indarkeriari. Gizarte parekide baterantz urratsak ematea eskatzen digu, gizarte seguru baterantz, emakumeen aurkako indarkeriaz libre egongo den gizarte baterantz urratsak ematea. Horrek, gizarte osoaren eta aginte publikoen inplikazioa eskatzen du, esparru guztietatik genero-indarkeriaren aurka borrokatzeko, beharrezkoak diren ahaleginak, bitartekoak eta baliabideak bideratuz.

Genero-berdintasunaren ikuspuntutik arazoari modu osoan, sektoreen arteko lankidetzan eta zeharkakotasunez heltzeko planteamenduaren barruan, udalek berdintasunerako politika aktibo eta eredugarriak sustatu behar dituzte berdintasunarekiko haien konpromisotik abiatuta. Ildo horretan, berdintasunaren kulturak izan behar du halako indarkeriari aurrea hartzeko tresna nagusia eta oinarritzkoa, gizartean halako indarkeria iraunarazten duten balioak eta portaerak errotik erazteko.

Ordiziako Udalak ez du isilik egon behar, ezin du eta ez du nahi. Eta horregatik, eta udal hau hainbat urtetatik hona garatzen ari den hausnarketan eta ekintzan sakonduz, EAJk eta Talde Sozialistak genero-indarkeriaren aurkako akordio politiko instituzional hau proposatzen dugu, Ordizia segurua, parekidea eta emakumeen aurkako indarkeriaz libre egonen dena eraikitzen urratsak emateko.

Behean sinatzen duten alderdi politikoak bat datoz ondorengo helburuekin eta konpromisoekin:

- Gai horren inguruan, *alderdi politiko guztiekin akordioa* sustatu.
- *Ordiziar guztiei, oro har, eta bereziki genero-indarkeriaren biktimei ahalduntze-estrategiak eman, eta udalerrri aktiboa, gogoetatsua eta gizartean arazoa den gai horrekiko arduratsua sortzen lagundu.*
- *Berdintasun-atala indartzen* jarraitu, eta egun indarrean dagoen emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako udal-planari bultzada eman, arazoari bere osoan heltzeko beharrezkoak diren aurrekontuko partidak eta baliabideak aintzat hartuta, eta udalean genero zeharkakotasunaren estrategiarekin aktiboki konprometituz.
- Euskadiko *Berdintasunerako 4/2005 Legeko arau-aginduak bete.*
- Unibertsaltasunaren eta berdintasunaren ikuspuntutik, *gizarte-zerbitzuen prestazio teknikoan estaldura hobetzen* jarraitu indarkeria matxistaren aurkako elkarlanean eta lan integralean. Zenbat kasutan eta prozesutan, indarkeria matxistaren prebentzioan gizarte-zerbitzuei dagokien jarrera erreferentziala eta aitzindarritza instituzionalaren jarrera erabili berdintasun-atalarekin koordinatuta, biktimei laguntza pertsonalizatua emaneko, eta, oro har, gaitz mespretxagarri horri etengabe aurre egiteko. Genero-ikuspegia edukiko duten gizarte-zerbitzuak, boluntarioei eta kalitateari, eta bizikidetzan unitatean pertsonen oinarritzko erlazioetan eta erkidegoan ematen diren aldaketei adi; halako gizarte-zerbitzuak ezinbestekoak dira tratu txarrak edo indarkeria pairatzeko arriskuak edo egoerak antzemateko, horien inguruko diagnostikoa egiteko eta arazoari heltzeko.
- *Erakundeen barnean eta erakundeen artean lankidetzan hobetzea* ahalbidetuko duten neurriak ezartzen jarraitu, genero-indarkeriaren aurkako borrokan eraginkortasun handiagoa eta berdintasun-politikek eragin handiagoa izatea lortzeko. Goierriko Protokoloa (2015) martxan jartzeko beharrezkoa den koordinazio-egitura bultzatu eta garatu.
- Udalean eskumena duten *langileei* emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko borrokaren inguruan indarrean dagoen esparru politiko eta legala aplikatzeari buruzko *derrigorrezko prestakuntza jarraitua* eman (prestakuntza iraunkorra: gizarte-langileak, gizarte-zerbitzuetako administrazio-langileak,

udaltzainak, eta, oro har, langile guztiei, berdintasunaren printzipioa udalaren eginkizun guztietan txertatze aldera).

- *Gizarte- eta giza laguntza emateko sare bat* eratzea aztertu, eta gauzagarria bada, sustatu, indartu, planifikatu eta martxan jarri, gizartearen sentsibilizatzeko, gizartearen irmotasuna emateko, eta ingurunerik hurbilenean landu beharreko prebentzioan inplikatzeko, erasotua izan den emakumeari babesa eman eta erasotzailea bakartuz.
- Urteko lehenengo hiruhilekoan udaltzaingoak eta Ertzaintzak, eta, oro har, datuak eta informazio interesgarria eman dezaketen instantziek bidalitako txostenen *analisi zehatza* egin, genero-indarkeria kasu guztiena, *helburua izanik gure udalerrian arriskua aurrez ikusten eta antzematen lagun dezaketen portaerak identifikatzea eta sistematizatzea.*
- Biktimentzako *segurtasun-alerten katalogo bat* garatu, arrisku-portaerak eta jarrerak antzematen laguntzeko, eta indarkeriaren biktima izan daitezkeenek segurtasunerako portaera-eredu egokiak ezagut ditzaten.
- *Mugimendu feministarekin eta emakumeen mugimenduarekin, eta, oro har, gizarte osoarekin bitartekaritza eta lankidetzak* mantentzen jarraitu, eta *akordio hau elkarreei* helarazi, bereziki berdintasunarekin aktiboki inplikaturik daudenei, *arlo politiko-instituzionaletik haratago joango den, eta bere baitan gizartearen eta herritarren ikuspegia eta partaidetza jasoko dituen akordio bat lantze aldera.*

Ordizian, 2015eko irailaren 14an

Sinatua: José Miguel Santamaría (Alkatea eta EAJ/PNVko bozeramailea)

Sinatua: Igor Eguren (Ordizia EH Bilduko bozeramailea)

Sinatua: Mila Sukia (Ordizia Orain-Podemosen bozeramailea)

Sinatua: Iñaki Dubreuil (talde sozialistaren bozeramailea)

M. Jose Vazquez (Ordizia Irabaziko bozeramailea)

### Hitzartzeak

#### Alkatea

*(Proposamena azaldu du).*

#### Igor Eguren

Eskatu genuen proposamena Berdintasun Batzordetik pasatzea, ekarri aurretik. Ez da pasatu eta ez gatoz prozedura horrekin bat, Batzordea ahaldu behar dugulako. Mahai gainean utzi beharko litzateke. Bestela abstenituko gara, edukiarekin ados egonda ere.

#### Mila Sukia

Testua kontsentsuatu genuenean, Batzordetik pasatzea erabaki genuen, han osatu zezaten.

## Iñaki Dubreuil

Nire alderdiak ez ditu bere planteamenduak alboratuko. Erakunde-kontsentsua ezinbestekoa da Batzordera eraman aurretik.

*(Eztabaida sortu da, prozedurari buruz eta Batzordearen paperari buruz).*

## Alkatea

Erakunde adierazpen bateratua da. Bozkatu egingo da eta Batzordera eramango da onartu ondoren.

### Bozketaren emaitza

Aldekoak: 6 (EAJ/PNV 5, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 6 (Ordiziako EHBildu 5, Ordizia Orain 1)

Beraz, Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.



## 10.- EAJ/PNVren proposamena, hiri hondakin solidoak jasotzeko sistemari buruzko kontsultari buruzkoa.

### Proposamena

Ordiziako Udalak hondakinen bilketa sistemaren inguruko kontsulta bat egingo du eta Ordiziarrei galdetuko die hondakinak biltzeko zein sistema ezarri nahi duten.

Ordizian lau edukiontzitan egiten zen hondakinen bilketa eta 2011ean organikoaren bilketa 5.edukiontzia bidez hasi zen.

2013ko uztailaren 12tik gaur arte, hondakinak atez ate biltzen dira eta honela, hondakin guztiak kubotan ateratzen dira.

2015eko batazbesteko datua:

Birziklatzera	%73
Zaborte-gira	%27

Kontsulta honetan, hondakinek biltzeko zein sistema nahi den aukeratuko da.



1.- Eskaera egitea Ordiziako Osoko Bilkurari hondakin bilketa sistema herri kontsulta lotesle bidez aukeratzeko dagozkion tramitean has ditzan.

### Hitzartzeak

#### Alkatea

*(Proposamena azaldu du).*

#### Igor Eguren

Honi buruzko lehen berria aurreko astean izan genuen. Horrelako gauza inportante bat ezin da presaka abiatu, interes jakin batzuei erantzuteko. Gainera, ez gaude zinegotzi guztiak. Eskatzen dugu mahai gainean uztea.

#### Mila Sukia

Ados gaude Igorrek esandakoarekin. Bat gatoz galdeketarekin, baina hau hona ekarri da aprobetxatzeko egoera jakin bat, guk boto bat gutxiago dugulako.

#### Alkatea

Komunikabideetan mugimenduak daudela ikusi dugu. Mahai bat osatu behar dugu, prozedura martxan jartzeko, jende asko dagoelako kontsultaren alde. Metodologia guztion artean definituko dugu.

#### Igor Eguren

Lehenik adostu behar da prozedura. Ez lehenik zer eta, ondoren, nola.

#### Mila Sukia

Gaia despolitizatu behar da. Gauzak ondo egiteko, proposamena talde guztiena izan zitekeen, eta ez EAJrena.

#### Alkatea

Horregatik lan-mahai bat osatuko da eta bertan herritarrek parte hartuko dute, gaia despolitizatzeke. Foro horrek izango du protagonismoa.

#### Iñaki Dubreuil

Normala da EHBilduk kontsulta eragotzi nahi izatea, bere garaian ez zelako hori egiteko gai izan. Irteteko pistola-tiroa egin behar da eta gero etorriko da partaidetza.

### Igor Eguren

Mahaiarena ez da testuan azaltzen. Mahai horrek berdintasunaren mahaiak duen protagonismo bera izango duen beldurra dugu. Ez diogu trabarik ipiniko prozesuari, baina zorrotz egin behar da. Aurka bozkatuko dugu ez delako proposamen serioa.

*(Eztabaida sortu da, jarraitu beharreko prozedurari buruz).*

### Herritar bat

Oso ondo mahai bat osatuko baduzue. Baina argi utzi behar da gaikako bilketa hiritar guztion ardura dela. Beasainen ez dira %50era iristen eta kontsulta egitea baldintza horietan ez da egokia. Hobeto da guztion artean adostea gaikako bilketa hiritar guztion ardura dela. Ezin gara atzeruntz joan. Gelditu eta kontsentsua lortu behar dugu.

### Alkatea

Guztiz bat gatoz: guztion ardura da. Beasaingo datuez gain badaude beste datu batzuk, hobeak. Gonbidatzen zaitut mahai horretan parte hartzera.

### Herritar bat

Enpresa mundutik nator. Kontenedore sistemak ez du hondakinen legea beteko, legea zorrotza baita industria-hondakinekiko.

### Herritar bat

Gaur egungo sistemarekin herria garbiago dago. Jendea sistema errespetatzen ari da. Edukiontzia jartzen baditugu lehen zeudenak baino handiagoak jarri beharko dira.

### Bozketaren emaitza

#### 1. Bozketa:

Aldekoak: 6 (EAJ/PNV 5, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1)

Aurkakoak: 6 (Ordiziako E.H. Bildu 5, Ordizia Orain 1).

Abstentzioak: 0.

#### 2. Bozketa:

Aldekoak: 6 (EAJ/PNV 5, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1)

Aurkakoak: 6 (Ordiziako E.H. Bildu 5, Ordizia Orain 1).

Abstentzioak: 0.

Alkatearen kalitatezko botoari esker, berdinketa desegin eta proposamena onartu da.



11.- Etxebizitzak alokatzeko diru-laguntzak emateko ordenantza behin betiko onartzea, dagoen alegazio bakarra ezetsiz.

Proposamena

Goian aipaturiko ordenantza hasieraz onartu zuen, Udalbatzarrak, 2015eko martxoaren 26an.

1) Apirilaren 1eko G.A.O.n argitaratu ostean, alegazio bakarra jaso da, Manuel Quintana Saturio jaunak egina. Proposatzen duena da 4.a) atala ezabatzea. Hau da, gutxienez bizikidetzaren unitateko pertsona bat Ordizian erroldatua egon izan beharra, gutxienez 3 urtetan, diru-laguntza eskatu ahal izateko.

Ez deritzogu egoki baldintza hori ezabatzeari, diru-laguntzen xedea ez baita Ordiziara inor erakartzea, Ordizian lehendik bizi direnei etxebizitza duin bat izatea ahalbidetzea baizik.

2) Bestalde, Idazkariak uztailaren 23an egindako txostenean jasotzen den bezala, ordenantzak baditu zuzendu beharreko akats batzuk. Hark dioenez, akats zuzenketa egiteko ez da behar prozedura berezirik. Zuzendu beharreko artikulua dira 1.a (lehen esaldiaren zati bat ezabatuz) 8.a (esaldi bat ezabatuz) eta 11.a. (esaldi bat ezabatuz).

Horiek guztiak kontuan hartuta, Udalbatzarrerako gaiak aztertzen dituen Informazio Batzordeak 2015eko irailaren 30ean erabaki du, aho batez, honako akordio-proposamena aurkeztea Udalbatzari:

AKORDIO-PROPOSAMENA

- 1.- Etxebizitzak alokatzeko diru-laguntzak emateko ordenantzari Manuel Quintana jaunak egin dion alegazioa ezestea.
- 2.- Ordenantzan, Idazkariaren uztailaren 23ko txostenean zehazten diren akatsen zuzenketa egitea.
- 3.- Ordenantza behin betiko onartzea eta argitaratzea.

Bozketaren emaitza

Aldekoak: 12(EAJ/PNV5,Ordiziako E.H.Bildu5,Ordizia Orain1,Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz, Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.



## 12.- Zenbait erakundetako Udal ordezkariak izendatzea

### Proposamena

Goieki/goitur: Belen Maiza eta Mila Sukia gehi, bozkarik gabe, Alkatea.  
Ur partzuergoa: Mila Sukia  
Oianguren Institutua eta Hizkuntza Eskola Ofiziala: Jose Ignacio Iturrioz

### Hitzartzeak

#### Alkatea

Legealdi hasieran gaia mahai gainean utzi zen, adostasuna lortze aldera, baina Sasietako ordezkariak buruz ez gara, oraindik, adostasun batera iritsi. Hortaz, Sasietako ordezkariak ez dugu gaur aukeratuko. Bai beste guztiak.

#### Iñaki Dubreuil

Sasietan bozkatuenak izan diren bi alderdiak egotea da zentzudunena.

#### Igor Eguren.

Guk nahi dugu Sasietan egon. Bozkek kontuan izanda, EAJ eta gu egon behar ginake. Baina Presidentea EAJkoa da, GHKn bezala; hortaz, proposatzen dugu Udalaren ordezkariak EH Bildu eta Ordizia Orainekoak izatea.

#### Alkatea

Guk ere interesa dugu hor egoteko, Ordiziarren interesak defendatzeko, herri ezberdinetan gure alderdiak jarrera ezberdinak izan ditzakeelako.

### Bozketaren emaitza

Aldekoak: 12(EAJ/PNV5,Ordiziako E.H.Bildu5,Ordizia Orain1,Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1)  
Aurkakoak: 0  
Abstentzioak: 0

Beraz, Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.



## 13.- Kreditu aldaketak

### Proposamena

2015eko Aurrekontuaren exekuzioa aztertu da eta kredituaren beharra duten partidak ezagutu dira. Baita ere, Aurrekontua onartu zenean ez zeuden behar berriak sortu dira eta aurre egin behar zaizkie.

Beste aldetik, beste partida batzutan ikusi da behar baino kreditu handiagoa dagoela eta erabil daitekela, sortu diren behar berriei aurre egiteko moduan.

Espedientea prestatu da eta 2015-9-30ean egindako Plenoko Gaien Batzordean horren berri eman da.

## AKORDIO PROPOSAMENA

Kreditu transferentzi 11. espedientea onartzea, segidako zehaztasunarekin:

2015 URTEA

### KREDITUEN TRANSFERENTZIAK

#### KREDITUEN HANDITZEA

#### ERAGIKETA ARRUNTAK

PARTIDA	IZENA	KOPURUA
211.01.132.00	Bonberi zaharreko atea konpondu	183,14
212.01.132.00	Udaltzaingo makinari eta tresneriaren mantenimendua	250,00
222.01.132.00	Udaltzaingoaren telefono gastuak	250,00
227.01.132.00	Udaltzaingo bulegoko garbiketa gastuak	2.400,00
212.01.133.00	Trafiko zainketarako materiala	1.000,00
227.01.135.00	DYAren lokalaren garbiketa	530,00
222.01.151.00	Hirigintzarako telefono gastuak	140,00
480.01.152.20	Birgaitze obretako dirulaguntzak	20.000,00
214.01.153.30	Hiri altzarien mantenimendua	1.000,00
212.01.153.40	Kaleko instalazioen mantenimendua	1.000,00
222.01.153.40	Kale konponketako brigadaren telefono gastuak	200,00
121.01.163.00	Zerbitzu Orokorreko langileen ordezkapen kontratazioak	58.100,00
221.05.163.00	Garbiketa zerbitzurako laneko arropa	2.000,00
227.01.163.00	Jaietako garbiketa hitzarmena	1.750,67
221.05.165.00	Argiteri zerbitzurako arropa	240,00
226.06.170.00	Inguruneari buruzko aktibitateak	4.000,00
221.09.171.10	Garbiketa produktuak	400,00
210.01.171.20	Oianguko mantenimendua	3.000,00
211.01.171.20	Oianguko eraikien mantenimendua	1.000,00
214.01.171.20	Oianguko altzarien mantenimendua	1.500,00
222.01.171.20	Oianguko telefono gastuak	500,00
226.99.171.20	Oianguko hainbat gastu	2.000,00

470.01.231.00	Goiekiri ekarpena	7.808,07
227.02.231.00	Jacques etxeko segurtasuna	160,00
480.02.231.30	Larrialdirako dirulaguntzak	30.000,00
222.01.241.00	Enplegu sustapeneko telefono gastuak	700,00
211.01.311.20	Komunetako eraikinen mantenimendua	4.000,00
227.02.323.20	Urdaneta ikastetxeko segurtasuna	950,00
227.02.323.30	Jakintza ikastetxeko segurtasuna	260,00
222.01.333.10	Kulturako telefono gastuak	155,00
227.02.333.10	Barrena Jauregiko segurtasuna	355,00
230.01.338.10	Jaietako arduradunaren dietak, kilometraoak,...	500,00
222.01.430.00	Merkataritzako telefono gastuak	600,00
226.99.430.00	Merkataritzako aktibitateak	1.500,00
226.92.431.10	Erdi aroko ferria	3.700,00
226.94.431.10	Beste feri batzuk	400,00
221.04.431.20	Merkataritzako errekina	200,00
212.01.432.00	D'elikatuz museoko tresneriaren mantenimendua	1.500,00
226.98.920.00	Administraritzako hainbat gastu	260,00
212.01.929.00	Epaitegiko tresneriaren mantenimendua	150,00
220.01.929.00	Epaitegiko bulego materiala	400,00
222.01.929.00	Epaitegiko telefono gastuak	200,00
221.03.929.00	Epaitegiko gasa	400,00
222.05.931.00	Teleprozesoko linea	1.900,00
221.03.933.00	Etxebizitzako gas-hornidura	1.000,00
221.04.933.00	Etxebizitzako gasolioa	300,00

158.841,88
------------

#### KAPITAL ERAGIKETAK

PARTIDA	IZENA	KOPURUA
626.01.132.00	Udaltzaingoaren informatika tresneria	2.775,74
649.01.133.00	Alde zaharreko trafiko programa eta kudeaketa programa	7.300,00
626.01.151.00	Hirigintzarako inpresora bat	459,80
601.07.153.40	Upabiko bide berria	3.000,00
623.04.165.00	Erreminta kaxa Argiteri zerbitzurako	1.567,00
623.02.171.20	Oianguko inbertsioak	20.000,00
623.02.231.20	Eguneko zentruko inbertsioak	900,00
625.99.333.10	Barrena jauregiko etxeko tresnak	275,00
623.04.334.00	Kongresurako tresneria	180,00
626.01.334.00	Kulturako informatika tresnak	380,00
623.04.337.20	Gaztelekurako tresneria	122,00

626.01.337.20	Gaztelekurako informatika tresnak	3.255,00
623.04.338.10	Jaietako tresneria	251,00
623.04.912.00	Gobernu Organotarako tresneria	641,30
649.01.912.00	Legislaturako Plana	20.000,00
623.04.920.00	Idazkaritzako tresneria	268,62
		61.375,46
	GUZTIRA	220.217,34

#### KREDITUEN GUTXITZEA

#### ERAGIKETA ARRUNTAK

PARTIDA	IZENA	KOPURUA
332.01.011.00	Maileguen interesak	30.000,00
933.01.011.00	Maileguen amortizazioak	30.000,00
227.07.151.00	Ikerketa teknikoak (Zarataren ikerketa)	17.550,00
480.01.152.30	Alokairu sozialerako laguntzak	25.780,00
480.03.152.30	Alokairu soziala	17.225,00
226.99.231.20	Eguneko Zentroko hainbat gastu	900,00
131.01.241.00	Enplegu sustapeneko soldatak	23.686,88
481.01.323.10	Hurtzaindegirako dirulaguntza	10.000,00
226.93.431.10	Ekobizi feria	3.700,00
		158.841,88

#### KAPITAL ERAGIKETAK

PARTIDA	IZENA	KOPURUA
601.07.153.00	Upabiko bide berria	2.100,00
601.08.153.40	Ibaiaren ondoko pasealekua Bustuntzan	314.146,09
601.01.171.10	Parke eta lorategien konponketak	40.000,00
622.01.231.90	San Jose Egoitzaren berriztapena	128.305,67
625.01.337.20	Gaztelekurako altzariak	1.425,00
626.01.920.00	Informatika tresnerien erosketa	8.000,00
		493.976,76
	GUZTIRA	652.818,64

## Hitzartzeak

### Kontu-hartzailea

*(Proposamena azaldu du).*

### Izaro Intsausti

Guk dugun dokumentua ez da proposamen hau. Grabea da bidali zaiguna ez izatea azken bertsioa.

Kreditu aldaketa berandu dator eta informazio gutxirekin.

*(Aurrekontuaren ejekuzioa dela eta, zenbait gai aipatu ditu: aparcabicis, zenbait paperontzi, Urdaneta eskolako jokoak..., herritarren parte-hartze prozesuan egindako proposamenen egoeraz galdetu du eta esan du zenbait diru-laguntza galdu direla).*

Azken legegintzaldian egindako lanari jarraipena eman eta aurrekontu parte hartzaileak jorratzeko lan egitea eskatzen dugu.

### Alkatea

Bilera batean emango zaizue aipatu dituzun gaiei buruzko informazio guztia.

### Belen Maiza

Larrialdietarako laguntzen egoera kezagarria da. Ezingo gara urte bukaerara iritsi. Jaurlaritzari eskatu behar diogu diru gehiago jartzeko.

Ikastetxeen mantenurako ere, Jaurlaritzak baino askoz gehiago jartzen du Udalak. Hor ere esijitu behar diegu.

### Iñaki Dubreuil

Egoitzetan nahiz Gizarte Larrialdietarako laguntzetan ez dira nahikoak Eusko Jaurlaritzako eta Aldundiko ekarpenak. Alderdi guztiek gauza bera egin dute eta egoeraren erantzule dira.

### Mila Sukia

Ez dugu onartzen 20.000 euro gastatzea legegintzaldiko planean.

### Igor Eguren

Proposamena alde batera uzteko proposamena egiten dut. Partida batzuk jaistea edo kentzea kezkatzen gaitu, enplegu plana nahiz alokairu soziala kasu.

Ez digute azaldu zein den egin nahi den legegintzaldiko plana.



## Alkatea

Alokairu laguntzak: deialdia egin behar da, eta beraz, epeengatik partida ez da beharrezkoa aurten, datorren urterako baizik.

Enplegu plana: udal langileen bajei aurre egiteko erabili da partidaren zati bat, eta beraz, horrek ere enplegua sortu du.

Legegintzaldiko plana: talde guztien artean adostuko dugu, baina beharrezkoa da enpresa baten laguntza.

*(Eztabaiada sortu da legealdi plana egiteko prozedurari buruz).*

## Bozketaren emaitza

### 1. Bozketa:

Aldekoak: 6 (EAJ/PNV 5, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1)

Aurkakoak: 6 (Ordiziako EHBildu 5, Ordizia Orain 1).

Abstentzioak: 0.

### 2. Bozketa:

Aldekoak: 6 (EAJ/PNV 5, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1)

Aurkakoak: 6 (Ordiziako EHBildu 5, Ordizia Orain 1).

Abstentzioak: 0.

Alkatearen kalitatezko botoari esker, berdinketa desegin eta proposamena onartu da.



Aztergai gehiago ez dagoenez, Lehendakariak bilera amaitutzat eman du, eta honako akta jaso da; hori, nik, Idazkariak egiaztatzen dut.